

## ELISSAMBURU: *EMAZTE EDALEA* (1)

### 1

#### AIRE HUNTAN: *Hau da ikhasketaco mandoaren traça*

Munduan ikhusten da hainitz bicio,  
Hoberenetic ere deus ez balio;  
    Bainan halere  
Ohituz gueroz hartan, bertceac bertce,  
    Çor edo hartce,  
Ecin arnega daite, arras hil arte. (*Biz.*)

Emazte edalea da higuigarri;  
Dabilan urrhaxetan, hain hirrigarri  
    Haren manera?  
Çokhoz çokho batetic eta bertcera,  
    Sar et'athera:  
Sabeletic ez hotça doha etchera. (*Biz.*)

Flasco muthur luce bat, bethi gordea,  
Ostaturat badaki ongui bidea;  
    Balitz erraile  
Edari churi gorri cembat suerte  
    Ahal lakike,  
Ibiliric senharrac deus yakin gabe. (*Biz.*)

Çaku bat mandatari, bihiz bethea,  
Irauten duen arte badu bakea;  
    Guero behar du  
Ohe eta athorez eguin merkhatu,  
    Dohainic saldu:  
Senharra eguin liro, ahalic balu! (*Biz.*)

---

(\*) BAYONNE — Imprimerie E. LASSERRE.

Emazte edalea alferketari,  
 Hauçorat yoan eta, berri condari.  
     Egun erdiac,  
 Senharra eta haurrac, landan guciac,  
     Erdi goseac:  
 Artha guti heyetaz cintçur luceac. *(Biz.)*

Ama biciotsua, hire haurrentçat  
 Mundurat sorthu hintcen, heyen caltetçat  
     Dudaric gabe.  
 Norc nahi dun har detçan etcheco andre,  
     Ez eguin yabe:  
 Beldurrez hi beçala, diren edale. *(Biz.)*

Emazteki çoroa, hic çahartcean,  
 Egoitçaric ez duken sarri etchcan,  
     Luça etciron.  
 Umekin ere ecin haiteke egon,  
     Deusetan ez hon;  
 Lehengo adichkidec ez nahi nehon. *(Biz.)*

Bici iraganari, ukho eguinic,  
 Sar beraz hire baithan orai beretic;  
     Othoitz Yaincoa,  
 Içan ez hadiela, ez lehengoa,  
     Ez hain flacoa:  
 Etchcan emanen dun, bake osoa. *(Biz.)*

*Elissamburu,  
 brigadier des douanes à Urrugne*

## 2

### HUNEN AIREA DA: Saratarra naicela oroc badakite

Bozcario handi bat bada gure baithan,  
 Ceren Eliça bestac diren herri huntan.  
 Nola eguinac garen ez dirogu erran;  
 Axeguin gaindizcoac gaitu hola eman. *(biz)*

Huna beraz non çaren, Besta, ethorria.  
 Aspalditik cintugun ikhusi nahia.  
 Plaçarat eguin duçu gaur gure galdia,  
 Han içanen dugula behar den gucia. *(biz)*

Gazteac heldu gare elkhar beroturic,  
 Lekhu maite hortarat ongui aphainduric.  
 Urtheac ez darocu emaiten egunic,  
 Hunec beçanbat placer eguiten daucunic. *(biz)*

Çuec ere Nescatchac baçohazte arin:  
 norat hari çareten nahi nuke yakin?  
 – Egun herrian besta behar dugu eguin;  
 han yostaturen gare, goacen elkharrekin. (biz)

Gure besta ederra çare maitagarri,  
 Çu gabe ez guinuke nehorc bici nahi.  
 Erremedio onac badituçu bethi,  
 Sendatcen dituztenac hainitz bihotz eri. (biz)

Denbora gucietan hola nauc içatu,  
 Ni maithatu nauena nekez duc çahartu.  
 Beharretan cirenac ditiat Lagundu,  
 Nahi gabe guciac bihotcetic khendu. (biz)

Huna nun den guiçona lau hogoi Urthetan,  
 Muskila beçain hece Oraino bestetan.  
 Gaztean cembait dantça emana placetan,  
 ikhusterat heldu da Urthe gucietan. (biz)

Eguiazki, çu besta, hainitz çare ona  
 ecin daiteke unha çurekin guiçona,  
 heldu bacinitçaizcu gu ganat ardura,  
 aisa pasa guinero Munduco denbora. (biz)

*Par Elissamburu Brigadier des Douanes  
 Acotz*

### 3

Rusiako Enperadorea - mintzarazi duc yendia,  
 bai eta truble handian eman kasik Uropa guzia:  
 ikhusirik huela kontra Frantzia,  
 hirur nazionentzat buru yarria.

Lan tzarrean Sarthu hintzela, bahuen bai Urrikiak!  
 Beldurrez eta bethikotz gal, Nikola, izen handia.  
 Lehen bezala orai ere Franxesaz haiz orhoituko  
 Nola Urez, hala leyhorrez, ez dukala bentzutuko,  
 ez dukala bentzutuko. (biz)

Franxesak ez dik ez faltatuko podore handiak baitik,  
 Untziak belan harmada onak laster altcharazten ditik  
 ez duk ez Mundu huntan Erresumarik  
 Abantail guehiagoz bethea denik,  
 eta, guidari Napoleon, Nolacoa den badakik?  
 Zeruko hedoi gorenean orai Tronua eman dik.  
 Altcha zatzik beguiak goiti eta erran franxesari,  
 ez dukala ez haren kontra guehiago deusik Nahi,  
 guehiago deusik nahi. (biz)

Rusia hire banaloreak horra beraz zertan diren,  
 Guzien yabe izan nahia, zoin behera yauxi haizen  
 Franxesa zenekotzat hasi muguitzen,  
 hire eremuetan, bai khechu hintzen.

Nahiz mila lecoa behar den, ixasoen trebesatzen,  
 Choilki Aiphamen horrek berak hainitz hinduen loxatzen,  
 orai hor dituk Zebaztopol, bai eta ere Marina,  
 erakusteko on direnak berriz eguiten badira!  
 berriz eguiten badira. (biz)

Gure aitek osabarekin zuten kurrutu Rusia;  
 Mosku erre ez baliote harturen zuten guzia,  
 Harmetarat gueroztik meyoria,  
 bethi segur baitzuten garhaitia,  
 iloba gure buruzagui badukegu bai fidantzia,  
 exai guzien bentzutzeko izanen dugula gloria:  
 izan gaizkon gu ere leyal, yarraikiz arranoari,  
 Frantziaren izena atzetan gora derabilkanari,  
 gora derabilkanari. (biz)

Nazione hainitzak dire Frantziaren yelosian,  
 Zeren eta emana baita bertze guzien gainian,  
 Manatu duelakotz berak Russian,  
 beldurrez eguin dezan Mundu guzian,  
 Printzeak bere gorthetarik daude ikhara bizian  
 agur eta Sumizione buruan eta Mihian.  
 Biba gure Enperadorea, biba bethi Napoleon  
 Zu bezalako aita onik ezin guiniroken Nehon,  
 ezin guiniroken Nehon. (biz)

*Fait par L.E.*

#### 4

#### **AIREA: hau da ikhazketako Mandoaren traza**

Berxuak nahi ditut, orai athera,  
 ichilik banindago banuke pena  
 bainan Neke da!  
 Krenolinaz baizikan Solasik ez da  
 hauche da besta,  
 Satanek etzezaken bertzerik penxa.

Andreak eman zaizku, Krenolinetan,  
 beharragorik etzen, familietan,  
 Guehienetan,  
 horrek onduko gaitik, gure zorretan,  
 botika hetan,  
 Akabo, eroriak gaituk errekan.

Hamalau berga oyhal, ez duk ixusi  
 Krenolina batentzat, ez dela aski,  
 ez gaituk gaizki;  
 Moda hori lehenik nork du ikhasi,  
 eguiten hasi,  
 paga nezakek ongui nor den banaki.

Batzuek aise eta, bertzeak nekez,  
 Bazterrak bethe dira, bai, Krenolinez  
 Gauza ederrez!  
 Gupela bezain zabal dira beherez,  
 Konkorrak gainez!  
 Gorde behar litazke yenden ahalkez.

Iragan egun batez, zen Komedia,  
 plaza baten erdian, ikhusgarria,  
 hango irria;  
 Andre bat zen piayaz yoan nahia,  
 ezin abia!  
 Karrosan etziron sar guibel aldia.

Postillon bat Kaskoina, yuramentuka,  
 bethi Krenolinari eskuz pusaka,  
 Diu bibanka:  
 “Cenbat ehun puskez dun eguina hanka,  
 “hori dun arkha!  
 “Karrosan ez haiteke hola enbarka”

Lehen mintzatzen guinen, gu, alkharrekin,  
 Arthoz ezin ase asea zela gurekin,  
 bazen zer eguin:  
 Orai gure andreak denak Krenolin  
 alabak bardin!  
 Nola hari zaizkigun nork diro yakin.

Urguilu, Malurosa, hi, habilana  
 guri eman arazten hainbertze pena,  
 bai eta guerla  
 Krenolinak emaiten balauk orena  
 hilen haizena,  
 Gal dadien bethikhotz hire izena.

*Eguina lehengoak*

## 5

Ni ere baniagok entzunik berria  
 Noiz aguerturen zaikun goardian yarria,  
 Ongui berantexirik lan horren hastera  
 ez diat errech yasan iragan Urthea.

Boz bat, bethi hari duk oyhuz guizonari,  
Maitha dezala lana eta yarraik hari,  
Ohorez nahi bada Mundu huntan bici  
ez dakiola Urrun ez ibil ihesi.

Ihes eguinez gueroz guizonak lanari  
ez daitekela ongui, segura duk hori  
sinhexi behar dena, likek, eguiazki,  
bertzenaz izanen duk bethikotzat gaizki.

Lanak badik exai bat hainitz Aiphatua,  
Zori gaitzean baita, Sobra hedatua,  
Alferkeria, galkhor, delakotz Sorthua  
errorik gaichtoenez lurra dik hartua.

Alferkeriak ez dik asmatzen deus onik,  
harekin ez duk uros Sekulan guizonik,  
bicio tzarrak ere zabilzkok onkotik  
Phozoinik ere ez duk lanyerosagorik.

Alferkeria zer den, bai, Nolakoa den,  
ikhusia izan duk orai baino lehen,  
Solas ederrez baizen Nehor ez dik ontzen  
eta, itchura falxoz, gazte hainitz galtzen.

Hanbat, nerhabe badik, bereganaturik,  
Orai urrun daudenak Sor lekuetarik  
borz aldiz Urrikituz hari yarraikirik  
Ziotek ez dutela nehon deskanxurik.

Lurrean emana duk guizona laneko  
Denbora guzietan hartaz bizitzeko:  
izan dadien hurbil edo Urrunago,  
hura dik hazkurritzat Mundu huntan deno.

Ala! Alferkeria, zoin haizen tristea  
hobe lukek hi ganik Urrun egoitea,  
hire eguin, erranak guti Sinhestea  
bertzelakoa lukek hainitzen Zorthea.

*Par Elissamburu, Brigadier des Douanes à Acotz*

## 6

Ama dolorezkoa  
ez Nauzu ikhusten  
Ni maluros umea  
Preso, nola naizen  
Zu ez Nahiz Sinhexi,  
Zure eguietan  
Zer dudan ardiexi  
Ene eguietan.

Nigarrez Zaude, ama!  
Nitaz orrhoiturik,  
ez othoi hola pena  
ez da progotchurik:  
Premu, presondeguian  
Nago Sekulako!  
bizi naizen guzian  
ez Naiz atherako.

Oren tristean Nintzen  
duda gabe sorthu,  
exaya ordutik zen  
ene baithan Sarthu  
guidari on batentzat  
Nola; haurrek aita  
hartu Nuen enetzat  
ai! ni enozenta!

Pena zait erraitea  
Ni, zer izan naizen,  
bainan ama maitea!  
zuri dut aithortzen:  
ez ahal da gaizkirik  
lur hunen gainean?  
Nik eguin ez dudarik  
Zuk yakin gabean!

Grazia bat dut ama  
zuri galdeguiten,  
hitz dautzut ez dudala  
bertzerik eguinen.  
Nehork aiphatzen badu  
Nitaz zerbait berri!  
othoi Ukha Nezazu  
hala dut Merezi!

Aita dut indietan,  
ez dakit noiz danik!  
bizi da plazerretan  
ez du deusen Minik,  
haren itzala bera  
izan banu hemen!  
Segur da ez nintzela  
horrela galduren!

Gorputza dut ikharan  
 loxa arimatik!  
 zeren galdu ditudan  
 Diruaren gatik  
 ba! Nintzen ondikotzat  
 hala dohatua!  
 ez ezagutzekotzat  
 zer zen bekhatus!

*Par Elissamburu Brigadier des Douanes*

*AIPHAMEN ONA: ELISSAMBURURI (\*)*

CANTORE HUNENTZAT:

DANTZARIA

7

*AIREA: Orzirale arraxian  
 Garruzetik yin ninduyan, etc.*

Hu-pa, muthillak lorian  
 Nola choriak airean!  
 Heldu nauk zuen erdian,  
 Rau, riu, rau, rata-plau, rau, riu, rau,  
 Heldu nauk zuen erdian,  
 Besta baitugu herrian.

Hu-pa, aleguera gaiten,  
 Soinua hari da yoitien!  
 Yoan gaizkola du erraiten,  
 Rau, riu, etc.  
 Yoan gaizkola du erraiten,  
 Urthean behin bederen.

Hu-pa, huna beraz, plazan,  
 Aurthen ez baikinien izan!  
 Oro hari gaituk dantzan  
 Rau, riu, etc.  
 Oro hari gaituk dantzan,  
 Zaharrak gaztekin balxan.

---

(\*) Bayonne, imprimerie de Veuve Lamagnère, Rue Chegaray, 39.



Hu-pa, arreba Kattalin  
 Orai, ez dun, buruan min,  
 Badabiltzan oinak arin!

Rau, riu, etc.

Badabiltzan oinak arin!  
 Tumpaka ongui badakin.

Hu-pa, Maria, atzo hi  
 Ohetik ez hintzen yeiki,  
 Lanean hartzeko eri

Rau, riu, etc.

Lanean hartzeko eri,  
 Egun gurekin dantzari!

Hu-pa, hic soinularia  
 Ardura duk egarria  
 Hi ere gu iduria!

Rau, riu, etc.

Hi ere gu iduria,  
 Okasionez balia!

Hu-pa, gur'etchean, ama,  
 Oilasko hiltzen hari da!  
 Arnoak ez diro falta,

Rau, riu, etc.

Arnoak ez diro falta,  
 Bizi bada gure aita.

Hu-pa, ama ez dut nahi,  
 Khorda eman lephoari,  
 Gazte nahi naiz ibili,

Rau, riu, etc.

Gazte nahi naiz ibili,  
 Ezkontzaz ez aipha niri!

Hu-pa, etchean bi andre  
 Guerla bizia laiteke;  
 Mokhorra, ama zu ere!

Rau, riu, etc.

Mokhorra, ama zu ere  
 Bake onik ez guinuke.